







*URKIAGA'TAR ESTEBAN Jauna
Errenderi'ko Eusko-olerti jaietan Saritutako
olerkaria.*

ESTEBAN DE URQUIAGA
Premiado en la Fiesta de la Poesía Vasca
de Rentería.





EUSKO OLERKIAK

**E'renderi'ko Olerti Jaietarako
eratu zan olerti gudara**

bidaldutakoenetatik autuak.

Aitzol'dar J'aren

ITZAUREA



1930

“EUSKALTZALEAK“

Gipuzkoa Aldundegiko jauregian. Donostia.

M. 2933

R. 34864

529

ATV
18319

SEAL E - 22

POESIAS VASCAS


Selección de las remitidas al certamen
poético organizado con motivo del

Día de la Poesía Vasca de Rentería

PRÓLOGO DE

J. de Aitzol

J. de Aitzol



“EUSKALTZALEAK”

Palacio de la Diputación de Guipúzcoa. San Sebastián

Elerti-pizkunde kimatxoak

Garai egokia

Oraingoan, euskaldunak gure izkera apaindu eta aberastu bearean gera. Eusko-elertia oparotsu-enetakoak ez bada ere, ez da askok uste lezateken bezin argal eta makala. Euskalzaleak alaz, guztiz, gure elertiari mendu gazteak txertatuaz sendotu nai luteke.

Ortarako biderik egokiena ordea, olerti gaiari eragitea zaigu. Goitar indar meea, almen-biotzetan, darabiltiten gazte azkarak bai bai-ditigu.

Gure sorterian olerkariak, eta ugaritsu, ale mardulak bezela, sortzen ez ba-dira, euskera loretsu, kemen-biziz indartua eta euskaldunen espaiñetan iñibar antzera ikusi bearean, oraindik argal eta beartsu luzaroan aurkituko degu. Olerki opari-ugaritsu gabe euskera ez da ernaituko, iñungo izkerarik poesi-neurtitzik gabe garatu eta sendotu ez dan bezela.

Ele apain, bigun, biuri, irudiz e'rez, adiz sakona, idazle lumetatik arin, aizetsu eta leun ixurtzeko euskerari beste biderik ez dagokio. Izkera-langile bearenekoak, olerkariak dira. Oiek ele gogor eta gordiña, olaetan burni goria meetzen dute eran, bizkortu eta gozotzen dute; oiek irudi biziz, asma-

Brotos de renacimiento literario.

Oportunidad del momento actual.

Estamos los vascos, en la actualidad, obligados, más que en ninguna otra ocasión, a enriquecer y avalorar nuestro caudal literario. No ha sido, ciertamente, nuestra literatura de las más fecundas, pero tampoco es tan ruin y desmedrada como muchos, gratuitamente, aseguran. Mas, sea de esto lo que fuere, los amantes de nuestras letras desean vigorizar nuestra modesta literatura renovándola con nuevas floraciones artísticas.

Pero, para la consecución de este intento nada hay tan adecuado como el iniciar y fomentar el movimiento poético. Tanto más, cuanto que advertimos la presencia de jóvenes poetas alentados por el impulso de la inspiración estética.

Lejos de contemplar el florecimiento del euskera y de verlo palpitar lleno de vida, asomándose a flor de los labios, arrastrará una existencia pobre y enfermiza mientras no aparezcan en nuestro suelo numerosos poetas. El euskera no resurgirá esplendoroso, como ningún idioma del mundo ha llegado a su madurez y engrandecimiento, sin que de su seno broten poesías de fecunda vitalidad.

Si deseamos que nuestra lengua hermoseada, ya, graciosa, rica de imágenes y repleta de profundos pensamientos, brote ligera, vaporosa y suave de la pluma de nuestros escritores no debemos seguir otro camino. Los artífices más valiosos del idioma son los poetas. Así como en las fraguas

keta zo'rotzaz, eta amets-ereduz aberastutzen dute; oiek itz joskera beri-arīgariak sumatzen dituzte. Idazleak aisago eta e'rezago ibili ditezen, olerkariak, erdikaldi nekeak igarota, buru-auste goriak ikusita, izkeraren bide zabalak idikitzen dituzte.

Arotz elertiari begiratu

Izkera guzien lu'ralteetan sasi eta la'rak garbitu dituztenak, soroetan azia lendabizi erain dutenak olerkariak izan dira.

Rapsodak zeritzaioten bertsolariak, aspaldiko greziera edertu zuten Homero olerkari ospetsuenari argi egiñaz. Onen Odisea latinera Livio Andronimo'k biurtuta gero, E'roma'n lenengo olerkaria Kinto Ennio sortu zan, beste edozein idazleen aue' zala. Sizilia eta Toskana'ko bertsolariak italiera iñork baño len o'rartzu zuten, Dante'ri bidea e'reztuaz. Prantzi eta Probentza aldietan, batez ere, trobadore bertsolariak gerozko olerkarien guraso bezela ezagutu bear lirake. Espanieraz asieran agertutako arīgariena «El Mio Cid», eresia dakusgu. Alemanin Hartman von Aue'k egindako zaldun olerkia antzin-antziñako doixtar idazkitzat aitortzen dute, eta lendabiziko idazle bikañentzat Klopstock olerkaria.

¿Zeintzuk inglandera apaindu eta ugaritu ote zu-
ten *minstrele* zeritzaioten koplakariak ez izanik?

trabajan sobre el blando hierro incandescente, de la misma manera ellos suavizan y endulzan la lengua más dura y desabrida; ellos la enriquecen con vivas imágenes, ingeniosas sutilezas y fantásticas creaciones; ellos inventan nuevos y sorprendentes giros y expresiones. Los poetas, después de haber soportado duros y difíciles trabajos, abren nuevos horizontes para que más fácilmente puedan desenvolverse los escritores.

Una mirada a las literaturas extranjeras.

Quienes primero han desbrozado el campo literario, sembrando en él la semilla de las futuras creaciones artísticas, han sido los poetas.

Los humildes rapsodas cultivaron el griego primitivo, inspirando el numen de Homero, el más famoso de los poetas; después que Livio Andrónico tradujo al latín *La Odisea*, surge en Roma el primer poeta, Kinto Ennio, predecesor de los escritores clásicos. Los trovadores de Toscana y Sicilia embellencen el italiano y preparan el advenimiento de Dante. Los juglares y trovadores que pululaban en Francia y en Provenza, sobre todo, deben ser reconocidos como los progenitores de los grandes poetas posteriores. *El Mio Cid*, una de las más prodigiosas creaciones de la incipiente literatura castellana es, también, una obra poética. Es reconocida en Alemania la poesía caballeresca de Hartmann von Aue como la producción artística más antigua, y como el escritor cumbre de la raza, el poeta Klostock.

¿Quiénes cultivaron el inglés primitivo y lo enriquecieron sino los poetas primitivos llamados

¿Shakespeare eta Milton, antziñako il idazle auren-
etakoenak, ez ote ziran olerkariak?

¿Eskotziera bastertu eta ezetsia, Burns olerka-
riak bezin egoki nork goratu ote du? ¿Nork Espan-
a'ko izkera, antziñan, der Vondelk aña landu,
eta oraingoan Ibsen olerkariak bezela Europa gu-
ziaren auren, ain sotil eta zoragarri azaldu?

Ez, ora or bide bakarra. Euskera piztutzea nai
izanik, eusko-olertia zabaldu. Olerkariak goratu,
txalotu eta indartu bear, euskera eder-sendoa nai
ba-degu.

Oretara, datorkizu liburutxo au irakurle.

Eusko-olerti-guduak

Olerkariak ernaitu eta zirkatzeagatik Erendi-
riko olerti gudua asmatu zan. Gure olerkari ospe-
tsuenetako baten-batek erantzun zigun. Oldargi bizi-
sutsuaz berotuta azaldun ziran gazteak biotza poztu
ziguten, ordea. Kima jatorak lore sotil biurtzen diran
bezela, olerkari gazte oiek ere eusko olertia lilituko
dutelakoan egon giñezke.

Oraindañokoan, bakan-bakan, olerki ederak
sortzen ba-ziran, sañago eta ugaritsuago, neuritz
egokiz apainduta, asmatzen dira gaur. ¡Bai auren-
rapen arigaria atzo ezkerotzik egin dana!

Erenderiko olerti batzaldia iaioenetakoa izan
ba-da, ez da lelengoa ordea.

Iruñako gotzain izan zan Venegas de Figueroa

minstreles? ¿No fueron poetas acaso los dos literatos consagrados por la fama universal, Shakespeare y Milton?

¿No ha sido el poeta Burns quien ha encumbrado el escocés, tan vilipendiado y menospreciado? ¿Quién embelleció, en la antigüedad, la lengua escandinava sino der Vondel y, en nuestros días, la ha mostrado radiante ante Europa sino el poeta Ibsen?

He ahí, por lo tanto, el único camino. Si deseamos el resurgimiento euskérico debemos intensificar la creación poética. Debemos alentar, aplaudir y ayudar a nuestros poetas, si ansiamos ver a nuestra lengua gozar de vida exhuberante.

Por esta razón, lector, se edita este libro.

Certámenes de poesía vasca.

Y, por enardecer y alentar a los poetas se organizó el certamen con motivo de la Fiesta de la Poesía Vasca en Rentería. Solamente alguno de nuestros poetas consagrados ha acudido al llamamiento. Mas, lo que conforta nuestro espíritu es la presencia de jóvenes de impetuosa inspiración. Confiamos en que así como el tierno capullo se convierte en hermosa y perfumada flor, de la misma manera nuestros jóvenes poetas enriquecerán, con sus producciones, nuestro vergel literario.

Si hasta el presente, rara vez se escribían hermosas composiciones poéticas, hoy aparecen ya más frecuentemente y engalanadas, además, con hermoso ropaje literario. Es bien notable, por lo tanto, el progreso que en contados años se ha realizado.

El certamen poético de Rentería ha sido de los

Andonik, 1609'garen urtean Eukaristiaren omenaz olerti-gudua eratu zuan. Moteltxoak saritutako olerkiak, iraunkor izateko. Irakurri ondoren, aintzakotzat ez dauzkagu. (1)

Sara eri zoragarriko Eleiz jaietan, 1865'garen urtean «Bertsuetako gduan», ohorezko sariaz aututako olerkiak, egiz, atsegin zaizkigu. (2).

Olerti batzaldi oizk ordea, ale bakarrik bezela sortutakoak, bakan-bakanak izaki, onurakoak izan bazaizkigu ere.

«Asociación Euskara de Navarra» zeritzaison bazkunak, lendabiziko, gure olertia sendotu eta goratzearen poesi-guduak iraun bidean jartzea erabaki zuan. Elizondo'ko aran politean 1879'garen urtean, olerkari gartsu eta kementsua jaio zitzaion Euskalerriari Añese eta Beitiatar Pilipa'k, bere goitar indarez aberastutato olerki saritua esan zuanean.

Donostia'n euskaldun zintzo batzuek 1887'an eratu zuten «Consistorio de los Juegos Forales»en bidez Gipuzkoa'n poesi-neurtuen zaletasuna zabaldu zan.

Goi mañako olerkaririk ezitzagun agertu, Jain zegoan eusko-olertia Iurak joa! baño txukun eta egoki azaldu zitzaizkigun batzu-batzuk: Berjas,

(1) *Gramática Bascongada*, ingoskia 28. Arturo Camión, 1888. *Revista Euskara*, 1879, ingoskia 199.

(2) *Revista Euskara*, 1870, ingoskia 91.

más fecundos, pero debemos manifestar que no ha sido el primero.

Ya, el año 1609, don Antonio Venegas de Figue-roa, obispo de Pamplona, organizó un certamen poético en honor de la Eucaristía. La mediocridad de las poesías premiadas no ha merecido se tenga estimación de ellas; así lo creemos nosotros, sinceraamente, después de haberlas leído (1).

Nos han producido una más grata impresión las que obtuvieron la mención honorífica en el certamen poético que se celebró con ocasión de las fiestas religiosas del pintoresco pueblo de Sara, el año de 1865 (2).

Aunque estos certámenes han sido beneficiosos, sin embargo se han celebrado de tarde en tarde y muy raras veces.

Fué la Asociación Euskara de Navarra la que con el fin de dignificar y encumbrar la poesía vas-ca, acordó celebrar, con carácter permanente, es-tos certámenes literarios. En el que tuvo lugar en el encantador valle de Elizondo el año 1879, dióse a conocer el fogoso y ardiente poeta Felipe Arrese y Beitia, al serle premiada su composición llena de cálida inspiración.

El Consistorio de los Juegos Florales, que va-rios amantes del euskera crearon en San Sebastián, el año 1887, avivó en Guipúzcoa la llama creadora de la poesía.

Si ninguno de los poetas premiados en tantos certámenes escaló las cumbres de la inmortalidad — tan maltrecha se hallaba nuestra poesía indígena --

(1) *Gramática Bascongada*, pág. 28. Arturo Campión, 1888. *Revista Euskara*, 1879, pág. 199.

(2) *Revista Euskara*, 1879, pág. 91.

Laralde, Oxalde, Gilbo, Etxegarai, Otaegi ta abar.

Abbadie, laburditar jaun jakintsuak eusko oler-tia piztutzearen, ure eta zilar eskumutu'rez aberas-tutako amaika makil banatu zituan, Euskaleriko jaietan olerkarieri saritzat eskeñiaz.

Geroztik ere «Euskal-Eriaren Alde» aldizkariak, 1921 ezkeroztik edo, olerki-guduak urte buru guzie-tan eratzen ditu gazteen doaitasuna, egoki eta txa-logari zirikatuaz.

Eusko-elertia, ordea, guztion laguntz leial-bea-rean dagoala ta, «Euskaltzaleak» bazkunak ere, urte oro olerki-batzaldia egitea erabaki du, zilarrezko aritz abartxoa saritzat ordainduaz.

Ona, orain, aurtengo gure lendabiziko olerki gudura, Erenderiko jaietara, etorriitako ontxuenak txorta eran bilduta, argitaratuak.

Olerkari saritua

Urkiaga jauna, izenordez, Lauaxeta, gerenak Erenderi'ko olerki-egimaren bibe ezagutu dute. Ez guk ordea. An eta emen argitaratutako bere neuritz bigun eta leunak, irakurtzen bai giñuzen, orain dala bi edo iru urte ezkeroztik.

Berez olerkari jaio ba-da, erdereetakoak irakuri ta ikasteakin aurerapen galantak itsasi zaizka. Batez ere, Prantzia'n aizkeneko gizaldietan agertu diran olerkarienganako zaletasun bizia nabaitzen diogu. Francis Jammes biotz-bigun, gauz txikitxoen ertilarri

sin embargo, tuvieron estas contiendas la virtud de suscitar literatos de cierto mérito como Berjas, Larralde, Oxalde, Gilbo, Etxegaray, Otaegui y otros.

El gran sabio labortano Abbadie, en sus ansias de renovación artística, ofrecía como premio a nuestros poetas, las clásicas *makillas* con empuñaduras de oro y plata en las fiestas vascas que periódicamente se celebraban.

Posteriormente, y a partir del año 1921, la revista *Euskal-Eriaren Alde*, organiza anualmente concursos de poesías, para estimular el ingenio de los jóvenes.

Mas, tan necesitada de desinteresada ayuda se halla nuestra poesía vasca, que la nueva entidad *Euskaltzaleak* ha acordado organizar, también anualmente, un certamen literario con idénticos fines, ofreciendo como premio a la mejor poesía una rama de roble, plateada. Y en este tomito ofrecemos, al lector, las poesías que más dignas de ser publicadas se han juzgado.

El poeta premiado.

Si merced a la Fiesta de la Poesía Vasca de Rentería, se ha revelado, para muchos, como poeta el señor Urkiaga, no ciertamente para nosotros, que, desde hace dos o tres años, íbamos leyendo atentamente las poesías que en diversas publicaciones escribía.

Si en su mente hervía, ya, la inspiración poética, la lectura y el estudio de los poetas extranjeros le ha beneficiado grandemente. Siéntese marcadamente inclinado hacia los poetas franceses que han florecido en las últimas épocas. Hemos

trebearenetik, Baudelaire elerti iraulari, «parnassisme» taldea irasi zuan olerkari arenetarañoko bertso arigarienak euskeratu dizkigu.

Biotz biguñekoa bera, baru-barundik irtendako leuntasun miña eta apaltasun meea daramazkiten olerkiak sortzea, atsegin zaio, noski, Lauaxeta'ri.

Verlaine, Sully-Prudhome, Guido Mazzoni, Copée eta Heredia'ren minkuntasun eta leuntasunak Urkiaga'ren oldargiari eragin diote.

Lamartine, Musset eta Victor Hugo, *romantizismo-gurasoen asmo* eta irudipen ilun' beltz eta alegeak baño egokiagoak deritzaizkio, nimbait, eusko olerkari onei, aiek ixuri zituen ainbat malko antzu eta gezur txukaturik «naitasun mee, gozo, atsegin eta aundikietara jotzea», Lamaitre epaile eraz, idatziaz.

«Maitale Kutuna», saritutako olerkia, olakoxea deritzaigu. Alako naitasun mee, gozo, atsegin eta aundikia, asmaketan eta irudietan alako batasun egokia, antz eta itxuraz alako aberaztasuna, ametsereduz alako indar bizitasuna; ahapaldi bakoitza pitxia, neuritz bakoitza dirdiz argikora.

Biotz maitekorak ezagutu ezaren, nolabait nabitzen duan maitalearen edertasuna, ahantziz, goratzen du. Era garbi-gardenaz eta apain oso, neskatz onen itxura adierazten digu. Egoak eragindako aizeak, liliak igurtzitzen dituan bezela, oartzen dira neuritzetan zerutar egokada leunak.

visto desfilar ante nuestros ojos, traducidas al idioma vasco, poesías encantadoras de escritores modernos renombrados, desde el tierno Francis James, el artista del detalle, hasta el revolucionario artístico Baudelaire, padre y fundador de la escuela parnasista francesa. La nota sentimental, los plácidos y tranquilos efluvios del corazón, con notas de exquisita ternura, son las principales características de las producciones artísticas de Lauaxeta. El delicado sentimentalismo de Verlaine, Sully-Prudhome, Guido Mazzoni, Coppée y Heredia ha hecho vibrar, sin duda, el estro poético de Urkiaga.

Más que las patéticas, tristonas y sombrías concepciones de Lamartine, Musset y Víctor Hugo, creadores de la escuela romántica, ha agrado a nuestro poeta vasco la actitud, más digna, de secar tanta estéril y retórica lágrima, como aquellos vertieron, y replegarse, huyendo de los afectos vulgares, a «la región de los sentimientos exquisitos, delicados, tenues, dulces y aristocráticos», valiéndonos de la frase del crítico Lamaitre.

Y todas estas cualidades, propias de un sentimiento privilegiado, encontramos en la poesía premiada,—«Maitale kutuna»—«La Enamorada Predilecta». Poesía tenue, vaporosa, aristocrática, con una unidad perfecta en su concepción y contextura armónica en la metáfora, rica en comparaciones y símiles y en la que cada estrofa es una perla y cada verso una brillante irisación.

Un corazón amoroso canta, ansiosamente, las bellezas de la enamorada que desconoce, pero a la que el alma, de alguna manera, adivina y presiente. Dibújase a esta doncella con pinceladas de pureza inmaculada y de belleza extraordinaria. En toda la

Gauzak zuhur neurtuak daude olerki onetan; maitalearenanako naia, berekoitz bizitz ezaugariak, Urtzi-ardura erabiltzea, ain garaiz eta egoki azaltzen zaizkigu. Coppée eta Heredia ezik *parnasotar*ak loitsu eta ziñisgabeak dagerzkigu; oiek irakaslaritzat euki ařen, Urkiaga garden, txukun eta ziñiskoi, ordea.

Parnasotar olerkariak iñork baño geiago bertso-era txukundu eta zaindu dute. Aietzaz zaleturik da-goan gure olerkariak ere, ikasle zintzoa izanik, neuritzak egoki asmatu bear. Esatez leun eta abalitsu, bukaera-berdintasunez aberatsak, Lauaxeta'ren neuritzak.

Lauaxetak olerki gai darabilkin asmoa, beste olerkari prantzez eta espñařak neurtu dute. Ar-vers Pelik amalauko «Mon âme a son secret» olerki polit txukunean, Lauaxetaren ahapaldi bateren-baten oroigarria edo ba-dakarkigu.

«Hélas! j'aurai passé près d'elle inaperçu,
Toujours à ses cotés, et pourtant solitaire.
Et j'aurai jusqu'au bout fait mon temps sur la terre,
N'osant rien demander et n'ayant rien reçu».

Verlaine'k «Mon reve familier» deritzaion olerkian agertzen diguna, motz oso ordea, Lauaxetak ere bikain azaltzen digu.

«Je fais souvent ce rêve étrange et pénétrant
D'une femme inconnue, et que j'aime...»

poesía parece sentirse el aleteo de lo celestial, como si rozase, apenas, los lirios del campo el aire suavísimo de unas alas desplegadas.

En esta poesía todo es discreción; el amor hacia el amante, ciertos detalles íntimos de la vida, la intervención de la Providencia, llevan el toque de una medida nada vulgar.

Si los parnasistas, que excepto Coppée y Heredia hicieron gala de su incredulidad y sensualismo, han sido, en cierta manera, los maestros de Urkiaga, no han influido poderosamente en sus ideas, porque éste se nos muestra puro, angelical y creyente.

Los poetas parnasianos han rendido un culto fervoroso a la forma y armonía del verso. Nuestro poeta tan aficionado a ellos en manera alguna podía descuidarlas tampoco. Son sus versos suaves, ondulantes y de una gran riqueza de consonantes.

El argumento que en su poesía desarrolla Lauaxeta ha sido tratado por otros poetas franceses y españoles. En efecto, el hermoso soneto de Félix de Avers, titulado: «Mon âme a son secret», nos recuerda alguna de las estrofas de Lauaxeta:

«Hélas! j'aurai passé près d'elle inaperçu,
Toujours à ses cotés, et pourtant solitaire,
Et j'aurai jusqu'au bout fait mon temps sur la terre,
N'osant rien demander et n'ayant rien reçu».

Lo que Verlaine, apenas, nos indica en su «Mon rêve familier», Lauaxeta nos describe con verdadera magnificencia:

«Je fait souvent ce rêve étrange et pénétrant
D'une femme inconnue, et que j'aime...»

Arvers eta Verlainek gai au ikutu bakarik egiten dute, laburki, bertsoak politak ba-dira ere. Lauaxetaren asmoa, beriz, borobilagoa, asegarigoa eta mardulagoa, oldozkun egokiaz osogoa, gardengoa, gogo usaiaz kutsutugoa. Janzkeraz aberatza-goa, nola nai ere. Irudi meeaz, antz eraz apaiñagoa, ez ahapaldi guzietan, baita neuritz askotan ere.

España'n izan dan olerkari ospetsuenetako Gabriel eta Galán, gizon apal eta biguñak, maitale ezangungeari, garden oso, abesten zion;

«Donde quiera que estés mujer hermosa,
predestinada esposa,
que merezcas aquí posar tu planta...
Ven, casta virgen, al reclamo amigo
de un alma de hombre que te espera ansiosa,
porque presiente que vendrá contigo
el pudor de la virgen candorosa,
el casto amor de la leal esposa,
la gravedad de la mujer cristiana».

«Maitale kutuna» dasadanak argaldu bea'rean iaiotasuna eranzten dio. Besteak erabili duten gaia, Lauaxetak era berira tajututa dagerkigu eta mami eta azalez egokiago, gañera. Gure olerti pizkundearako, bai zoriona, erdel poesi jatorrekin batera aintzakotzat artu aal izatea, Lauxetarena bezela.

Verlaine y Arvers, aunque en estrofas verdaderamente talladas, tratan, sin embargo, brevísimamente el asunto. El pensamiento desarrollado por Lauaxeta es más completo, perfecto y madurado, de más honda penetración, más puro y, sobre todo, más espiritual. El ropaje poético es, también, más rico, y más abundante en finas imágenes y metáforas y no solamente en algunas estrofas, sino en algunos de sus versos.

Uno de los más grandes poetas castellanos, el dulce y apacible Gabriel y Galán, cantó, castamente, invocando a su futuro amor:

«Donde quiera que estés, mujer hermosa,
predestinada esposa,
que merezcas aquí posar tu planta...
Ven, casta virgen, al reclamo amigo
de un alma de hombre que te espera ansiosa,
porque presiente que vendrá contigo
el pudor de la virgen candorosa,
el casto amor de la leal esposa,
la gravedad de la mujer cristiana».

Nada de cuanto decimos resta mérito alguno a la poesía «Maitale Kutuna», sino que al contrario, eleva su valor. Lauaxeta nos presenta, con nuevas facetas y con conceptos y formas más dignas y ricas, el asunto que otros hayan podido tratar. Nos daremos por satisfechos con que la crítica pueda comparar esta poesía de Lauaxeta con otras extranjeras de índole parecida. Con ello, prestarán un apreciable servicio a nuestro renacimiento literario.

Ohorezko aipa

Mamiz sakona, oldozkun zoñotzduna, goi-jakitez josia «Jainkoagan bat» olerkia, ohorezko aipa iritxi duana. Urte batzuetan olerti-mugatik aruntz Ormaetxea jauna egon bazaigu, beriro eta kementsu alare, olerkari bikaiña bezela datorkigu.

Olerkiaren muin-azalak berekoiak ager zaizkigu. Sendiko gertaera gai artuaz, noizik bein zerutar Irutasuna, ain egoki aitatuaz darabilkiala, bertsoak uzkol jantziaz edo estaliak deritzaizkigu.

Ormaetxearen goiargia uberka batetik dijoana ez da noski. Eusko oiturak kutsututako ain olerki politak eta biziak sortu aal-ditzakela «Itzai zeckenak» argi erakusten digu. Itufitik ura, e'rex oso, dato'ren eran, Orix'e're, bat-batean, olerki alai-jolaslariok, margo biziz edertutakoak datorzkio.

Erzatz oparitsuak

Euskerari bide beriak idikitzearen, bide xiurak utzita zabaleera jo dezan, almen bikañeko olerkariak agertu zaizkigu, Agirre jauna, Lizardi izenordez, eta Tapia'tar Alexander, Iruña'koa.

Ez dituzte era zarera olerkiak tajutu nai, gisa berira baizik.

Lizardi «Txolare'e»n olerkari berizale au sartzen zaigu, «Otar utsa»n xamur, guri eta minberatua; sakon eta aztun «Agur»en, ordea.

Mención honorífica.

La poesía titulada «Jainkoagan bat», premiada la con mención honorífica, de profunda concepción, entraña pensamientos trascendentales y subidas expresiones teológicas. Si el señor Ormaetxea ha permanecido alejado durante algunos años de las lides poéticas, vuelve ahora con ardoroso brío, mostrándose los quilates de su penetrante inspiración.

Se muestra este poeta totalmente original, tanto en el fondo como en la forma de su composición poética. Tomando como motivo un acontecimiento familiar, evoca de tal manera y tan admirablemente el misterio de la Trinidad, que consigue impregnar sus versos de un delicado misticismo.

No es tampoco su inspiración de las que siguen los linderos de un solo cauce. La poesía «Itzai zekena», de ambiente totalmente folklórico vasco, nos demuestra cuán bellas poesías puede producir en este género artístico. Con la fluidez con que el agua brota del manantial, puede Orixe componer estas poesías de carácter festivo y de tan marcado color popular.

Tanteos fructuosos.

Se esfuerzan algunos jóvenes, de innegables dotes de talento, en que el euskera avance decidido por los amplios caminos de un próspero engrandecimiento, abandonando los caminos angostos de su renovación. Son dignos de mención el señor Aguirre, popularmente conocido por Javier de Lizardi, y el pamplonés Alejandro de Tapia. Aleján-

Atzerian Tapiak asmatutako «Txori mindua» irudi-kementsuaz indartua arkitzen degu: ekaitz zataŕa biziki lenengo zatian, eŕi-miňa zoŕozki bigarenean gure irudimenari adierazten dizkio.

Euskeraren malda gora erkatzen dijoazten olerkari oien lan zaŕak, elertiarentzako onurakorak zaizkigu egitan.

Olerkari gaztetxoak

Neurtitz arin eta lirain-eŕexetan estropada jokubizia, «Aŕaunketa» olerkian, bikain adierazten digu Loidi gaztetxoak; zintzo eta mee iru olerki politetan bere giotar lenengo opariak, Jakakortajerenaŕk, dakarzki; apal eta goxo bertso leunetan gai egokiak ikutzen ditu Zugazti apaizak; minkun eta xamur Arozena euskaltzale zintzoa, esaridun neurtitz laburetan.

Ernaitzen ari diran elerti-landare oiek itxaropen ugaritsuak ez ote dizkigute eskaintzen? Olerki arin eta alaia, egiz, Enbeitaŕtar Imanol'ek egin diguna.

Betegariz edo

nai izan ditugu beste bi olerkitxo ere txorta onetan bildu. Bata Jauregitar Koldobika, gure olerkari bikain-bikaiňenetakoak, bere omenaz egin zan Eŕenderiko Olerki Egunean, irakuri zuan olerki iaio ta aŕigaria. Bestea Euskerari Emakumeen maite-agu-

dose de la forma tradicional, imprimen a sus versos aires de modernidad.

Lizardi, en su poesía «Txolare», muéstrase francamente modernista; tierno y dulce en «Otar utsa»; grave y pensador en «Agur!».

La poesía «Txori Mindua», escrita por el señor Tapia en el extranjero, está avalorada por imágenes y metáforas de gran viveza; en la primera parte describe dinámicamente la tempestad y el hondo sentimentalismo de la nostalgia en la segunda.

No puede ser sino altamente beneficioso para nuestra lengua, el laborioso esfuerzo de estos poetas en sus ensayos de renovación literaria.

Jóvenes poetas.

Describenos el jovencito Loidi, en su vibrante «Araunketa», las emocionantes regatas de traineras en versos ágiles y juguetones. Delicado y fino se nos presenta Jakakortajarena en sus tres poesías. Sencillo y humilde aparece el sacerdote señor Zugasti, en sus suaves versos, tan apropiados con los temas que evoca; sentimental y tierno en su breve, pero sentenciosa poesía el ardoroso euskaltzale Arocena.

¿No podremos esperar, confiadamente, que estos incipientes literatos puedan el día de mañana producir obras de verdadero valor?

Manuel de Embeita canta con júbilo la misión del poeta vasco.

A modo de complemento

hemos querido incluir en este tomo otras dos poesías. Una de ellas, la magnífica que en la Fiesta de

rean, orain egun gutxi egin dan jai zoragarri o'retan, abestu zan olerkia, Labayen'dar Andoni'k eri-erara egindakoa, antziñako ahapaldi bat ereduz artuaz. Guk ere eritar-poesi-antzera argitaratzen degu, ain egoki tajutua deritzaigu eta.

Ez uste, irakurle, goi-goi malako olerkiak edo argitaraltzen ditugulakoan gaudela. Ain itxuak ez gera, lauso pizka bat begietan ba-daukagu ere. Baña gauz eder, sotil eta politak aurkituko dituzulaoank gaude. Dana-dala gure elerti pizkundean au'erapen txalogaria egin degula deritzaigu.

AITZOL'DAR J.

la Poesía Vasca de Rentería, organizada en honor de Luis de Jáuregui, nuestro poeta consagrado por unánime aclamación, leyera éste, y otra, la que se cantó en el acto del Homenaje de la Mujer al Euskeria, fiesta deslumbrante que, poco ha, tuvo lugar. Antonio de Labayen, tomando como modelo la estrofa de una antigua canción, ha hecho una admirable poesía popular y, como tal, la incluimos en esta colección.

No creas, lector, que al publicar este librito creemos ofrecerte poesías de un mérito extraordinario. Aunque el interés empañe algo nuestro criterio, alcanzamos, con todo, a ver los yerros y defectos que hay, en realidad. Sin embargo, confiamos en que hallarás cosas bellas y artísticas. Sinceramente, creemos que con estas poesías damos un paso más en la senda de nuestro renacimiento literario.

J. DE AITZOL

Maitale Kutuna

Iñoz ikusi bako maitale kutuna
neure opa samurok laztanduten dabe.
Begi gelgariz dargist biotzeko iluna,
eta bere larosak usainduten nabe.

Zerutar egak ditu maitasun zaleak;
luhera baxen sari so-dagi ortzira.
Bere leuntasun zear inosu sutsuenak
espan ganean, otoi biurtuten dira.

Garbitasun usaiña txakian dixuri,
eta lo-dagonean ametsezko irriak
aboko larosetan dagerkoz urduri.
Aiztatzak alai dartu zelaiko liliak.

Neskatil ori nor dan ez dazau biotzak;
baña bera dan ona, bera dan liraiña!
Begi oneik ez ahen, bai-dakus ametsak.
Erean dazaukiot bekoki bikaiña,

La enamorada predilecta

A la enamorada predilecta que nunca contemplaron mis ojos, acarician mis ansias de ternura. Con su mirada angelical ilumina la oscuridad que inunda mi corazón y sus rosales en flor me envuelven en perfumes.

La veheinencia de su amor posee alas celestiales; más veces que a la tierra vuelan sus ojos hacia el cielo azul. Los besos encendidos del fogoso amor se transforman en divinas plegarias sobre nuestros labios, al acercarse a su ternura ideal.

En su casta alcoba derrama esencias de pureza, y cuando el sueño cierra sus ojos inquietos, ensueños de amor florecen en sus rosados labios. El lirio de los prados la reconoce por hermana suya.

El corazón ignora el nombre de esa doncella. ¡Pero cuán buena es ella! ¡Cuán encantadora! Aunque mis ojos no la vean, la contemplo en mis ensueños. Su frente noble la pudiera reconocer en la modestia de sus encantos.

Saři bilauko neban bizitza bidean
ta edertzat autortu beraren gorputza,
nok baña dasayoke begien auřean.

—Maite audana, ete az neure neskutza?

Maitasun onek Goiko Jaunagan ditxaro,
Berak aizean bidez lilitxu guztiak
udabari aldian dalkartuz emaro.
Berak lotuko ditu maitasun lokiak.

Indař ixilkor batek batzen dauz gogoak;
itzak loitzen dituez maitasun guenak.
Baře alaiak ezik, bařuko malkoak
zale onentzat dira antzikuř gardenak.

Maitaleak izanik, alkartuko gara,
jolas aldian ezik, otoien orduan.
Eguzkira ezpada, gabeko ilazkara.
Noz'ak utzi Jainkoan izpizko eskuan.

Aldi alaitzu ori jadetsi artean
neure ezkongai bailiran neskatil danari
begiratzen dautsiet dagidan bidean.
Neska polit bakoitzan zakust ameslari.

Con frecuencia la habré encontrado en mi senda y alabé la belleza ideal de su cuerpo. ¿Pero quién es el osado que se atreva a decirla ante sus mismos ojos: Eres tú, tal vez, la virgen predilecta que yo añoré?

Mi amor confía en Dios, pues El válese de las brisas, durante la primavera, para hermanar las flores todas de los campos. El entrelazará los hilos del amor.

Una fuerza misteriosa une las almas gemelas. Las palabras son nubecillas que empañan la transparencia de los amores castos. Si no las alegres sonrisas, serán las lágrimas el espejo límpido donde se reflejen nuestras ansias.

Si somos fieles al amor llegará el tiempo de abrazarnos; si no a los rayos esplendentes del sol, a la pálida luz de la luna, si no al recrearnos, al orar por lo menos. La hora abandonémosla en las manos resplandecientes de Dios.

Mientras llegue ese momento tan anhelado, a todas las jóvenes miro en mi camino, como si fueran mis futuras prometidas. En cada doncellita hermosa te vislumbro rodeada de un nimbo de ensueño.

Besteak zeure ederra goratuten dabe,
eurentzak gelgariak soin oren pitxiak.
Baña zeure zalean indartuten nabe
begi polit samuren leuntasun izpiak.

Zerutarak bai-dirak geure maitasunak,
eta leikide batek eztauz lausotuko.
Oraindik eztauz loitu gurari lizunak
eta gorputz iritsak eztauz banatuko.

Ikus eziña zara ezkongai neskutza!
baña, ařen, entzun neure maitasunan naya:
Edura baxen zuri irauki gorputza,
izan zaite zitoriz gotzon baten gaya.

Izan zaite, oi neure neskatal argia!
maitatzen dodan amatxu baxen leguna,
leituten dodan alaba baxen garbia.
Ori litzake neure gogoko zoruna.

Samurtasuna landu gogo oren altzoan,
urumarako zara ba usoen antzera.
Ondo zaindu zaidazan oñaze orduan
olderik naiko dauko biotzak ostera.

Tus otros admiradores alaban la hermosura de tus sentidos. Para ellos son dignas de encomio las bellezas de tu cuerpo. Pero al contemplar los rayos fúlgidos de tus inocentes ojos, brota en mis labios la alabanza portadora de mi deseo ardiente.

Nuestros amores son hijos del cielo y nunca un celoso de sus encantos ha de empañarlos. Todavía no los ha enturbiado el deseo menos puro, ni las ansias desmedidas del cuerpo las han de truncar.

¡Oh, virgen prometida!, eres invisible a mis ojos, pero escucha lo que mi amor anhela. Más pura que la blanca nieve de las serranías conserva tu cuerpo. Ansio seas un lirio digno de ser besado por un ángel.

¡Oh, mi purísima doncella!, sé siempre tierna como la dulce madre que adoro, y pura como la hija que mis anhelos añoran. Será, entonces, la dicha dueña de mi corazón.

Vea la dulzura en tu alma angelical, pues, como paloma, naciste para arrullarme. Cuando te cerquen los dolores mi corazón sabrá defenderte con el ímpetu fogoso de su cariño.

Espan o'reintzatdaukoz mosu samurenak,
samin o'reintzat bañiz, maitasun eztia.
Eta txori politen abesti leunenak
zeugana eldu daiten loaro guria.

¡Zeu maitatzeko nazan biotz samurduna!
seaska ertzan datzan amatxu lakoa.
¡Gorde zaidazan, bañiz, jaio nintzan luna!
Eusko seme lerdena, bildur gabekoa...

Zeugan pentzaten nabil Jaunaren bidean,
eta lokatz artean egaz dagit azkar.
Andra baten oroia naiko da lu'rean
garbi iraun dagiguntzat etsai orok-zeañ.

¡Oi neure biotzeko ezkongai gardena!
beti, añen, aditu maitati ortzira.
Zeugan musua baxen kutun dot añena:
¡Andrak ederñen dira zerurantz begira!

URKIAGA'TAR ESTEBAN
(Lauaxeta)

Para tus labios, guardo, oculta en mi pecho,
la dulzura de los besos más tiernos; para tus pe-
nas, la miel de los amores. Poseo los cantos más
melodiosos de las aves para impregnar tus pá-
pados en la paz del sueño.

Para amarte tengo un corazón rebosante de
ternura. Como la tierna madre que vela, senta-
da, junto a la cuna de su hijo. Pero nací cual
león para defenderte de toda asechanza. Hijo de
la raza vasca que jamás tembló ante el peligro...

Pensando en ti, camino por la senda que Dios
me señaló y vuelo, con alas de pureza, sobre los
lodazales de la vida. El recuerdo de una mujer
es suficiente en este valle cenagoso para que nos
conservemos siempre puros...

¡Oh, mi gentil prometida, predilecta de mi
corazón! Eleva tus ojos con dulzura hacia el
diáfano cielo. ¡En ti prefiero la oración al beso!
Las mujeres son más bellas cuando miran al
cielo.

Yainkoagan bat

I

NERE BURUA

Bil nadin barnera, mintzo bat entzuki,
argi bat izetuz, bihotza landuki,
Leze-barne huntan zer dut ikusgarri?

Bost aldiz nerera mintzo ozenak yo du!
ni beriz etxetik huруn nabilazu!
Ate-yoka norbait. Erantzuna... «Bego».

Iparra geldi da, legun dator ego,
hegatsetan dakar maitetasun bero.
Haren mintzoari muziñik nork egin?
Bide zoroak utz, etxera sar nadin.

Etxera sar eta zoko denak ilhun,
begi lauso hau noiz enegandik huруn?
Egun zoroaren aztarnak itzali,
Deitzaile maitea, Zu zaitut iguzki.

Unos en Dios

I

YO MISMO

Concéntreme en mi interior, a la voz de una llamada, encendiendo una lumbre y desbastando mi corazón. En esta profunda cueva, ¿qué se ofrece a mi contemplación?

Mil veces ha llamado a mi puerta la penetrante voz; pero yo vagaba lejos de mi casa. Llama alguien a mi puerta. Mi respuesta es: «luego».

Ha cesado el cierzo y sopla caricioso el medio-día; en sus alas trae fervoroso amor. ¿Quién será esquivo a su llamamiento? Deje yo mis desvariados caminos y penetre en mi casa.

Penetro en ella y hallo oscuros todos sus escondrijos. ¿Cuándo me despojaré de la alucinación de mis ojos? Tú, amado que me llamaste, borra las huellas que en mí dejó aquel insensato día. Tú eres mi único sol.

Ba dakust enegan izkutu hondāra:
barnean bizi dut Irutan Bakāra.
Berak bizi nau ni, Beronek naragi;
barne-muin hunetan Berau bekit argi.

Nigan hari duzu, Aitak sor Semea,
ta alkar maitatuki Biōngandik duzu
Has Gurena. Yesus ¡Nire lo betea!

Ernal-ituria nigan daukadala
Yainkoaz hain antzu ¡Nondik raiz ibili?...
Aunitz esker! Yaunak egin baitit argi.

Ez bezat argi hau nik itzal, ez bezot
edozein mintzori ta argiri yaramon:
emen daukat oro; etxe-barnen nagon.

II

ANAI SABELKIDE MARTIÑ'I (*Otoitzaz*)

Ura ziñun gorputz azal-ustelkora;
yausi zen zure etxe aragiz egina
iru urte baino len. Arima zerura
igan zen, leizetik argi betikora.

Ya percibo dentro de mí un profundo misterio: dentro de mí vive el que es Trino y Uno. El es quien me da la vida; El es quien me está impulsando. El sea mi luz en lo más recóndito de mi interior.

En mí está obrando: el padre engendra al Hijo, y de ambos, amándose mutuamente, procede el Espíritu Santo. ¡Dios mío! ¡Y qué letargo el mío!

¡Teniendo en mí al que es la fuente de la fecundidad, estar yo tan estéril de Dios! ¿Por dónde he andado? Mil gracias, porque el Señor me ha iluminado.

No apague yo esta lumbre; no dé oídos a cualquiera voz, ni guíe mis ojos otra luz. Aquí lo tengo todo. Estéme yo en lo interior de mi casa.

II

A MI HERMANO UTERINO MARTÍN (Plegaria)

Rasgaste tu cuerpo de corruptible corteza; cayó tu casa construída de carne, antes de los tres años. El alma subió al cielo, de esta cueva a la luz perpetua.

Labur egon zedin ilhunpe beltz hantan.
Oraino zu baitan adi-argirik ez,
grazi-argia bai sort-egun berean. (1)

Aingeru gazteñok erauzi zinduan
Yaunaren aginduz intxaur-adaretik.
Han geldi ginduzun gu biok gordiñik
intzaur-oskol barnen ondu-bitartean.

Beste begiz ikus, beste gogoz maite
duzu Yainko on hori. Irutan bat dena,
(Aitagandik Seme, Biengandik Hatsa)
aitzinean duzu, dena den iduri. (2)

Guk emen bai, zuk ez behar oroipenik;
euzki horek ez du bein laino-tarterik,
Ikustez, maitatzez, ateraldi bage,
zer zorion duzu sabel-anai maite!

(1) Zedin, zen L. arc.

(2) Bezelat.

Breve tiempo estuvo encerrada en esta oscuridad. Todavía no lucía en ti la luz de la razón; pero la luz de la gracia te iluminó el mismo día de tu nacimiento.

Un Angel niño te arrancó, como se arranca la nuez de la rama de un nogal: en él quedamos nosotros dos inmaduros dentro de la cáscara, hasta que nos llegue la madurez.

Con otros ojos miras a ese buen Dios; con otra voluntad le amas. Al que es Uno y Trino (el Hijo engendrado del Padre, y procediendo de ambos el Espíritu Santo) le tienes ante ti tal como es.

No necesitas memoria como aquí la necesitamos nosotros. Ese sol jamás tiene interrupción de nieblas. Contemplando y amando sin interrupción, ¡qué dicha la tuya, hermano mío de un mismo vientre!

Ba dugu luren argi hoñen izpi,
baina gorgutz hunek askotan itzali.
Iguzki-tarteka zerbait ba dakusgu,
baino oroit-ezaren lainoak galtzen gu.

Ez egon behar ni aterik bage erne,
Yainko onaz beterik esnai ta lo ere!

Igorazu, anai, oinhaze ernegari,
Yainko-min sakona, barne-gogo bizi.
Enegan ez bedi gaurdanik otz, ez gau,
argi bero oretan ur nadin guzi hau.

Oroipen gaixo hau bego bere baitan
aron ibiltzeke, tinki Yainkoagan.

Amak sabelean gu senti bezala
senti zagun Yauna. Iñen garenean,
ark baino barnago altzoan gaitzala.

Ya llega hasta la tierra un rayo de esa luz; pero este cuerpo nos lo apaga muchas veces. Vemos a intervalos cuando mira por entre las nubes; pero la niebla del olvido nos ofusca.

¡Que no pueda estar yo atento sin distracción, henchido de Dios, ya durmiendo, ya en vela!

Envía, hermano, un dolor que me avive el recuerdo; dolor de Dios profundo, deseo interior vivo. No haya en mí desde hoy ni frío ni noche: derrítame todo en esa calurosa luz.

Que la pobre memoria mía esté en su acuerdo, fija en Dios, sin vagar acá y allá.

De la manera que nuestra madre nos sintió a los tres en su vientre, sintamos nosotros a Dios. Y cuando muramos, que nos acoja en su seno, más intimamente que ella.

III

AREBA SABELKIDE DENUXI'RI

(Chile'ra)

Huŕun aiz, huŕun dun gure Martiñ; emen
aitaren ondoan nauzute, ta an goien
amarekin hura.

Yainkoak baŕeia
gindunan bere esku legun begidunez:
halere esku huntan geuden zorionez,
ezin aldeginki. Bai esku zabala,
sabel berokia, begi maitakora.

Begi-nini gaitin; elkarago geuden
sabelean baino. Nere buru barnen
zaute zuek ere bihotz-arimetan:
hirurok bat gaitun oroipen bizitan;
batago Yainkoan. Hunek gu sor, bizi,
Hunek emai onez Bera sendirazi.

III

A MI HERMANA DIONISIA

(A Chile)

Lejos te encuentras, lejos se halla nuestro Martín; aquí junto a nuestro padre me tenéis a mí; y allá arriba junto a nuestra madre está él.

Dios nos desparramó con su mano suave y providente; sin embargo en esta mano estamos, por dicha, sin poder apartarnos de ella. ¡Qué mano tan anchurosa (generosa)! ¡Qué seno tan abrigador! ¡Qué mirada tan amorosa!

Somos niñas de sus ojos: estamos en El más unidos que estuviéramos en el seno materno. Dentro de mi pensamiento estáis también en espíritu: los tres somos uno en la viveza del pensamiento; pero más uno en Dios. El nos crió y nos da vida; El nos concede, por un excelente don, que le estemos sintiendo.

Sabel bateti ilki, sabel batera yo
(Yainko onen altzora): emen argi, bero;
emen zegon zori luŕean gaudeño.

Gauzkion zantuan, aterik bage erne,
gauden adi beti, dugun beti maite
anai harek antzo. Dakusagun elkar
Yaunari begira, bihotza su ta gar.

Ez geuden huŕuti, hortik ainbat bide
emendik zerura, Yaunaren altzora.
Sar adi barneon, ago Yainkoari;
emen ikusko naun; behon anaiari.

Gu bien gorputzak ama luŕak irets
ditzanean, ordun, Yaun hunen altzoan
arimok bil bitez betiko beroan.

ORMAETXEA'TAR NIKOLAS.
(ORIXE)